

05

2023ko uztaila

Pedagogia Pentsioetan

JARDUNBIDE EGOKIAK

DEMOGRAFIA

Prestazioak

Gzarte Aurreikuspeneko Sistemak

Kontingentziak

Bazkideak

Erakundeak

Txostenak eta azterlanak


Inbertsioak

Rankingak

**Euskal Autonomia
Erkidegoko
gizarte-aurreikuspen
osagarriaren
behatokia**



ECONOMIA ETA OGASUN
SAILA
DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA
Y HACIENDA





5. BULETINA – 2023KO UZTAILA

BGAEn Dekretu berriaren tramitazioa hasi da

Ekainean, BGAEn Dekretuaren proiektua aldez aurretik onartzeko Agindua onartu da. Lehentasuneko enpleguko BGAEn modalitatea bultzatu nahi du, administrazio-gastuak mugatzan ditu, inberti daitezkeen aktiboen panela zabaltzen du eta inbertsio iraunkorren eta arduratsuaren arloan baziuden eta onuradunen eskura jarri beharreko informazioa zehazten du. Horrela, honako dekretu hauek aldatzen ditu: 87/1984 Dekretua, otsailaren 20ko, BGAEn buruzko Legearen Erregelamendua onartzen duena; 92/2007 Dekretua, maiatzaren 29ko, BGAEn jarduera jakin batzuk arautzen dituena; eta 203/2015 Dekretua, urriaren 27ko, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko otsailaren 23ko 5/2012 Legearen Erregelamendua onartzen duena.

**AGINDUA, ECONOMIA ETA
OGASUNKO SAILBURUAREN
BORONDATEZKO GIZARTE-
AURREIKUSPENKO ALDEKO HAINBAT
DEKRETU ALDATZEN DITUN
DEKRETIU-PROIEKTUA ALDEZ
AURRIKETIK ONARTZEN DUENA**

2023ko maiatzaren 18ko Aginduan bidez, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen arloko hainbat dekretu aldatzen dituen dekretu-proiektua egiteko prozedura hasi zen.

Xedapen Orokorra Egiteko Prozedura ekainaren 30eko 6/2022 Legaren 15.1. artikuluan ezartzen duenez, xedapen orokorrean resoluzioak sikeri osotzen

Mediante Orden de 18 de mayo de 2023 se inicia el procedimiento para la elaboración del Proyecto de Decreto por el que se modifican diversos Decretos en materia de Entidades de Previsión Social Voluntaria.

El artículo 15.1 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General establece que una vez redactados los

Informazio gehiago

Autonomoak eta pentsioak Euskadin

Geuk egindako infografia, Euskadiko autonomoen eta haien pentsio publikoen panoramika jasotzen duena. Hala, autonomoen batez besteko erretiro-pentsioa (1.091 euro) erregimen orokorean kotizatutzen dutenen batez besteko erretiro-pentsioa (1.915 euro) baino askoz txikiagoa da (% 43). Kolektibo garantzitsua da, 70.000 autonomok baino gehiagok erretiroagatiko prestazioa kobratzen baitute. Eta beste 168.000 personak autonomoen erregimenean kotizatzen dute gaur egun (etorkizuneko pentsiodunak). Erronka autonomoen etorkizuneko pentsioa hobetzea da, honako hauen bidez: 1) errendimendu garbietan oinarritutako kotizazio-sistema berria eta 2) autonomoentzako enpleguko gizarte-aurreikuspeneko planak bultzatzea.

Informazio gehiago

Erretiro-pentsio publikoa azken soldataren % 75 da Euskadin

Ordezkapen-tasak erretiro-pentsioak lan-etapan erretiroa hartu aurretik jasotako azken soldatareniko duen ehuneko neurzen du. Euskadin, erretiro-pentsio publikoa batez beste azken soldataren % 75,1 da, eta Estatuarekin batera (% 76,2) EB-27 osoko tasarak handienetako da (% 48,9). Pentsio publikoaren estaldura txikiena Erresuma Batuak (% 21,6) eta Herbehereek (% 29,2) dute. Bilakaerak erakusten du ordezkapen-tasak etengabe behera egin duela Euskadin eta Estatuau, % 80ko langa gainditzen iritsi baitzen, pentsio-sistemaren iraunkortasuna bermatzeko ezarri diren erreformen ondorioz.

Informazio gehiago

Erretiratzeko batez besteko adina 64,5 urtekoa da Euskadin

Euskadin, batez besteko erretiro-adina 64,5 urtekoa da, eta, gora egin arren, erretiro-adin arrunta baino txikiagoa izaten jarraitzen du. Araban erretiratzeko batez besteko adina apur bat baxuagoa da (64,3 urte). Estatu osoan, erretiratzeko batez besteko adina 64,9 urte da, eta autonomia-erkidegoen arteko alderaketak erakusten du Euskadik duela zenbatekorik txikienetako bat. Izen ere, Asturiasek eta Nafarroak bakarrik dute erretiratzeko batez besteko adin baxuagoa. Aitzitik, 65 urtetik gorakoa da: Kanarietan, Murtzian, Balear Uharteetan, Galizian, Extremaduran, Andaluzian eta Madrilgo Erkidegoan.

Informazio gehiago

Pobrezia-adierazleak Euskadiko senior biztanleriaren artean

Geuk egindako infografia, senior biztanleriaren pobrezia-adierazleak jasotzen dituena. 65 urte eta gehiagoko 9.000 pertsonak baino gehiagok kobratzen dute DSBEa Euskadin, eta gehienak emakumeak dira (% 68,2). Senior kolektibo hori (65 urte eta gehiago) DSBE jasotzen duten pertsona guztien % 18,3 da. Gainera, aipatzeko DSBE jasotzen duten hamar pertsonatik lauk 55 urte eta gehiago dituela (% 39,1), eta kolektibo horrek gero eta garantzi handiagoa duela (% 35,3, 2019an). Bestalde, gora egin du pobrezia-egoeran (mantenua) dauden 65 urte eta gehiagoko pertsonen ehunekoak, % 4,2ra arte (2020. urtea). Nabarmentzekoa da emakumeen kalteberatasun handiagoa: senior gizonen pobrezia-ratioa laukoiztu egiten du (% 7,2 eta % 1,9).

Informazio gehiago



5. BULETINA – 2023KO UZTAILA



Enpleguko pentsio-planak arautzen dituen Errege Dekretua uztailean onartzea aurreikusten da

Aurreikuspen arabera, uztailaren 23an egingo diren hauteskundeen aurreko azken Ministro Kontseiluan onartuko da enpleguko pentsio-planen sustapena arautzen duen errege-dekretua, zeinak otsailaren 20ko 304/2004 Errege Dekretuak onartutako pentsio-planen eta -funtsen Erregelamendua aldatzen baitu. Testu berri horrek legearen erregelamendu bidezko garapena jasotzen du (12/2022 Legeak txertatua), enpleguko pentsio-planak bultzatzea arautzen duena enpleguko pentsio-plan sinplifikatu berrien arloan eta baita sustapen publikoko enpleguko pentsio-funts ireki berriak ere.

Informazio gehiago



Invercoren urteko memoria argitaratu da (2022)

Pentsio Funtsen aktiboen bolumenak behera egin zuen 2022an, merkatuetako kotizazioetan izandako zuzenketa esanguratsuen ondorioz, eta urtea 115.641 milioi euroko aktiboen bolumenarekin itxi zuten, hau da, 2021ean baino 12.358 milioi euro gutxiago (-% 9,7). Sistema Indibidualaren ondarea 80.234 milioi eurokoa izan zen (-% 10,2), sistema honetan egindako ekarpenen bolumen txikiagoak baldintzatuta; Enplegu Sistemaren ondarea, berriz, 34.628 milioi eurokoa izan zen (-% 8,4), errentagarritasun negatiboen ondorioz, eta prestazio garbiek gora egin zutelako aurreko urteekin alderatuta, ekarpen gordinen bolumen txikiagoak baldintzatuta.

Informazio gehiago



Espainiako Bankuak pentsioen erreformaren eragin-aurreikuspenak jaitsi ditu

Espainiako Bankuak nabarmen jaitsi ditu Gobernuak pentsioen erreformaren bigarren fasearekin aurreikusitako diru-sarrerak. Erakundeak ohartarazi duenez, testuan jasotako gizarte-kotizazioen igoerak. Gizarte Segurantzaren diru-sarrerak BP Gren % 0,6 igoko ditu 2030ean, eta % 0,9 2050ean, hau da, Espainiako Gobernuak azken ekitaldi horretarako aurreikusitako % 1,1aren azpitik. Gainera, adierazi du igoera hori "txikiagoa" izan daitekeela, baldin eta lan-kostu handiagoek eragin negatiboa badute lehiakortasunean, soldatetan edo enplegutan. Ondorio horiek bat datozen beste erakunde batzuek egindakoekin, hala nola Agintaritza Fiskalak (AIRF) eta Fedeak egindakoekin.

Informazio gehiago

15 avril 2023 JOURNAL OFFICIEL DE LA REPUBLIQUE FRANCAISE Texte 1 sur 146

LOIS
Loi de financement rectificative de la sécurité sociale pour 2023 (1)
N° : EC202300970

L'Assemblée nationale et le Sénat ont adopté.
Vu la décision du Conseil constitutionnel de 2023-49 DC du 14 avril 2023,
Le Président de la République promulgue la loi dont la teneur suit :

Article 1er
Pour l'année 2023, les prévisions de solde et de solde effectif de l'ensemble des administrations publiques, les prévisions de solde par sous-secteur, la prévision, déclinée par sous-secteur d'administration publique et exprimée en milliards d'euros courants et en pourcentage d'évolution en volume, des dépenses d'administration publique et des recettes d'exploitation et financière, sont fixées au niveau moyen commun de l'ensemble des administrations publiques exprimées en pourcentage du produit intérieur brut, ainsi que les prévisions, pour la même année, de ces mêmes aggrégats, telles qu'elles figurent dans le projet de loi de programmation des finances publiques pour les années 2023 à 2027, établissois comme suit :

2023	LFRS pour 2023	PLFP 2023-2027
Ensemble des administrations publiques		
Solde structural (1) (en pourcentage du PIB potentielle)	0,1	-0,0
Solde courant (2)	0,2	-0,2
Solde des ressources ponctuelles et temporaires (3) (en pourcentage du PIB potentielle)	0,3	-0,0
Solde effectif (1+2+3)		

(1) % de PIB sur une année commerciale

Frantzia: pentsioen erreforma onartu da, erretiro-adina atzeratzeko eta kotizazio-aldea luzatzeko

Lege berria (Loi de financement rectificative de la sécurité sociale pour 2023), apirilaren 14an aildarrikatua, Konstituzioan jasotako izapide baten bidez onartu zen (49.3 artikulua), eta horri esker onartu ahal izan zen parlamentutik igaro beharrik gabe. Erreformaren bi neurri nagusiak honako hauak dira: erretiratzeko legezko adina pixkanaka atzeratzea, 2030ean 64 urte bete arte, eta eskatutako kotizazio-urteen kopurua handitzea (gaur egun 42 urtetik 2027an 43 urterra), pentsioaren % 100 kobratzeko eskubidea izateko. Era berean, beste neurri batzuk ere jasotzen ditu, hala nola erregimen bereziak pixkanaka desagertzea eta lan-karrera luzeak dituztenentzat pentsatutako konpentsazio-sistema bat mantentzea, besteak beste.

Informazio gehiago

Buletin gehiago
>> [Informazio gehiago](#)

[Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren Behatokia](#)